

Sustrai se persona en los juzgados como acusación popular contra la macrogranja Valle de Odieta

SUSTRAI ERAKUNTZA :: 14/02/2023

La Fundación Sustrai Erakuntza ha denunciado en múltiples ocasiones el tremendo impacto negativo de las macrogranjas en Navarra

[Euskara]

Sustrai Erakuntza herri akusazio gisa pertsonatu da epaitegian Valle de Odieta makroetxaldearen kontra

Dakizuenez, Sustrai Erakuntza Fundazioaren azken hilabeteetako lan-ildoetako bat makroetxaldeek Nafarroan duten eragin negatibo izugarria salatzea izan da, bai lurraldearen orekan, bai ingurumena zaintzen duten eta herritar guztientzat elikagai osasuntsuak ekoizten dituzten **tokiko nekazaritzan eta abeltzaintzan**. Zentzu honetan, Sustrai Fundaziotik hainbat ekimen jarri ditugu martxan: makroetxaldearen proiektuei alegazioak egitea, edota honako txosten hau bezalakoak idaztea, Valle de Odieta makroetxaldean dektektatuak izan diren irregulartasunen inguruan, zeina Nafarroako Parlamentuan aurkeztu genuen beste talde batzuekin batera.

Honako oharrarekin, abeltzaintza makroeredu intentsibo honen aurkako borrokan **jauzi kualitatibo** handia egin dela jakinarazi nahi dizuegu. Gaur egun erabat murgildurik gauden kasua 2021ean hasi zen, Caparrosoko Valle de Odieta makroetxaldeak lurzorua eta akuiferoak kutsatu izanaren ondorioz. Gertakari hauen harira jarritako salaketak, zenbait talde ekologistek zein Nafarroako Gobernuak berak jarritakoak, auzitegietan tramitatzen dira, **eta artxibatzeko bidean ziren**, honela, enpresak eta bere abokatu-armadak egindako gertakarien erantzukizunari aurre egitetik salbatzea lortuko zutelarik. Ikustea besterik ez dago enpresak beste zenbaitetan bere asmoak lortu duela epaitegietan, froga gisa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak 2021ean instalazioak handitzeko baimena eman ziolarik, obrak jadanik eginda zituela.

Aukera horren aurrean, Sustrai Erakuntzak auzian pertsonatzea erabaki zuen, **tramitatzen ari ziren dokumentazio guztia ezagutzeko asmoz** eta herritarrek ingurumen garbi eta osasuntsua izateko dituzten eskubideak defendatzeko asmoz. Eta Tafallako Epaitegiak **herri akusazio** gisa onartu du Sustrai Fundazioa. Salaketak aurrera darrai. Kasu hau dokumentazio andana sortzen ari da, gure abokatuak errebisatzen ari direla. Horrek esan nahi du gastu-aurreikuspen handia egin behar dugula, Sustrai bezalako entitate txiki batentzat ez dena ahuntzaren gauerdiko eztula.

Horregatik, Sustrai Erakuntzak **dirua biltzeko kanpaina bat burutzeko hautua egin du, ekimen hau aurrera atera ahal izateko**. Ekarpen askorekin, txikiak izan arren, gai izango gara ingurumenaren eta Nafarroako nekazaritza- eta abeltzaintza-sarearen suntsiketaren erantzuleak judizialki zalantzan jartzeko. Izan ere, **gure helburua ingurumenaren aldeko eta lurraldearen defentsarako borrokak indartzen eta babesten jarraitzea da**.

BABESTU EZAZU NAFARROAKO MAKROETXALDEEN ISURKETEN KONTRAKO HERRI AKUSATIOA

ABELTZANTZA INDUSTRIALARI EZ. ZURE LAGUNTZAK ASKO BALIO DU

Diru bilketa Sustrai Erakuntza fundazioaren kontu korrontearen bitartez egiten da. Jarraibideak web orrialdean aurkituko dituzu.

Nafarroan, 2023ko otsailaren 14a

Sustrai Erakuntza Fundazioa

[Castellano]

Sustrai Erakuntza se persona en los juzgados como acusación popular contra la macrogranja Valle de Odieta

La Fundación Sustrai Erakuntza ha denunciado en múltiples ocasiones el tremendo impacto negativo de las macrogranjas en Navarra, tanto en el equilibrio territorial como en la actividad agrícola y ganadera basada en sistemas alimentarios locales que cuidan del medio ambiente y producen alimentos sanos para toda la población. En este sentido, desde la Fundación Sustrai hemos ido tomando distintas iniciativas como la realización de alegaciones a proyectos de macrogranjas, o los estudios y artículos que hemos realizado, como este [completo informe de las irregularidades detectadas en la macrogranja Valle de Odieta](#), que presentamos en el Parlamento de Navarra junto con otros grupos.

Pero esa defensa del medio ambiente y la ganadería tradicional nos exige ahora un importante **salto cualitativo**, que tiene origen en el importante episodio de [contaminación de suelo y acuíferos producido por la macrogranja Valle de Odieta de Caparroso en 2021](#). Las diferentes denuncias de estos hechos, realizadas tanto por varios grupos ambientalistas, como por el [propio Gobierno de Navarra](#), se tramitan actualmente en los tribunales. Sin embargo, mucho nos temíamos que estas denuncias pudieran **quedar sobreseídas**, y la empresa salvarse de afrontar su responsabilidad. No hay más que ver cómo en otras ocasiones la empresa ha conseguido sus pretensiones en los tribunales, como prueba el hecho de que el TSJN fuera quien le permitió legalizar en 2021 la ampliación que ya tenía realizada.

Ante esta posibilidad, Sustrai Erakuntza decidió personarse en la causa, con el fin de **conocer toda la documentación que se tramitaba**, y tratar de hacer valer los derechos de la ciudadanía a un medio ambiente limpio y sano. Esto ha llevado a que finalmente el Juzgado de Tafalla haya reconocido a la Fundación Sustrai Erakuntza como **acusación popular**. De este modo, las abogadas de la fundación están ahora analizando la gran cantidad de documentación remitida por los juzgados. Ello va a implicar la necesidad de realizar una previsión de gastos, que para una entidad tan pequeña como Sustrai, es de un monto importante.

En estas circunstancias, la fundación Sustrai Erakuntza ha decidido realizar una **campana de recogida de fondos para sacar adelante esta iniciativa**. Creemos que, con muchas aportaciones, aunque sean pequeñas, seremos capaces de cuestionar judicialmente a los gigantes de la destrucción tanto del medioambiente como del tejido agroganadero navarro. Porque **nuestro objetivo es seguir fortaleciendo y apoyando las luchas en favor del medio ambiente y en defensa del territorio**.

APOYA LA ACUSACIÓN POPULAR CONTRA LOS VERTIDOS DE LAS MACROGRANJAS EN NAVARRA.

DI NO A LA GANADERÍA INDUSTRIAL TU AYUDA VALE MUUUCHO.

La recogida de fondos se realiza a través de la cuenta corriente de la fundación Sustrai Erakuntza. Las instrucciones se encuentran en su web.

En Navarra, a 14 de febrero de 2023.

Fundación Sustrai Erakuntza

<https://eh.lahaine.org/sustrai-se-persona-en-los>